



BOTOIEN KAXA

Neska-mutilek kolorearen arabera taldekatuta egon behar dute.

IPUINA

Gaurkoa egun berezia da
Nekaneren jostundegian,
berhala jakingo baitugu
zertan aritu den lantegian.

Soineko bat ote da?
Zetazko gona bat, agian?
Inork ez daki zer dagoen
oihal handiaren azpian.

Botoien kaxan
urduri daude denak.
Zurrunurruak entzuten dira:
«Estalita dagoen hori zer ote
da?».

Halako batean, Nekane,
kendu egin du estalkia...
Beroki eder bat da,
zerua bezain urdina!

Botoi urdinak
txaloka hasi dira,
berokia urdina denez
joango direlakoan haien bila.
**Botoi urdinak dauzkaten
haurrak pozez jauzika hasiko
dira.**

Gainerako botoiak
triste jarri dira.
«Ez garenez urdinak,
Nekane ez da jarriko guri begira¹».
**Triste daude urdinak ez diren
botoiak dauzkaten umeak.**

Urdinak harrotu egin dira,
onenak direla sinetsita:
«Zeinen ederrak garen!
Bai garela politak!».

«Nik atzean egon behar dut,
oihalak eusten tinko,
baina ezkutatuta egongo naizenez,
inork ez nau ikusiko».

«Okerrago egongo naiz ni,
denen ordezkoa izango naizelako.
Bakoitza bere lekuan egonez gero,
ez naiz kanpora sekula aterako».

¹ Botoi beltzek esaten dute hori.



(Hurrengo lau paragrafoak botoi txiki batek esango ditu).

«Ez du axola non gauden;
ez izan ezeren beldur.
Denok gara garrantzitsuak,
denok lagun dezakegu».

«Zer gertatuko litzateke
botoi bat galduko balitz?
Beste botoi bat jarriko lukete,
hariarekin josiz».

«Denek ikusten dituzte
aurrealdeko botoiak,
baina ezkutatuta daudenak ere
behar ditu berokiak».

«Oraindik ez dakigu ze botoi
hartuko dituen aurrean jartzeko,
baina denon beharra dauka
berokia janzteko».

Hara zer erabaki zuen Nekanek
kaxako botoiak aztertzerakoan:
«Botoi guztiak jarriko ditut,
forma eta kolore guztietakoak».

Botoiak saltoka hasi ziren,
pozaren pozez.
Bai beroki ederra,
hainbeste kolorez!

**Neska-mutilak, ordenean, beren
botoia berokian jartzera joango
dira, eta gero beren taldera
itzuliko dira.**

Ikustean botoi guztiak
ezberdinak zirela,
ikusi zuten gauza bat ikasteko
garaia iritsi zela:

Denak elkarrekin bizitzeko
garaia iritsi zela!
Ikusi zer gertatzen den
kaxa gogoz astintzean.
**Neska-mutilak nahasi egingo
dira.**

Botoiak nahasi egin dira!
Ospatu egin behar da hori!
Jarri musika eta ikusi
dantzan nola hasten diren poz-
pozik.

Egin dantza zuk ere,
eta gogoan izan
taldearen barruan
zuk ere baduzula garrantzia.

Batzuetan aurrean egongo zara;
besteetan atzean,
baina eskuzabala izan beti,
eta baloratu besteak.

Orain, jarri musika ozen
eta has gaitezen dantzatzen!
Denak dantzan hasiko dira.